


FUNTSEZKO JARDUERAK

Dibertimendua beti egoten da ur-parkeetan, familien eta maskoten leku gogokoenetako bat izaten delako. Eguraldi ona egiten badu oporretan edo asteburuko ihesaldi batean, aukera ezin hobea da gure txirristak, jokoak eta igerilekuetaz gozatzeko. Baina, beste guztia bezala, dibertimendua era guztietan zaindu beharra dago. Horregatik, faktore jakin batzuk bete behar dira dibertimendu-sentsazio horiek mantendu eta sortzeko, gure bezeroak pozik jarraitzeko. Hori esanda, gure negozioaren funtsezko jardueren artean, zenbait azpimarratu ahal ditzakegu:

Alde batetik, maskotaren eta familiaren **ongizatea**, ondo pasatzen duten kontrolatzea eta beraien asebetetze maila ezagutzea ezinbestekoa da, gure proiektuan beharrezko egokitzapenak egin ahal izateko.



Beste aldetik, gure negozioaren **garbiketa** garrantzi handia du, higiena oso garrantzitsua delako eta are gehiago txakurraren garbiketa. Horregatik, garbiketa sistema eta uraren zirkuito instalazio jasangarriak eta eraginkorrak diseinatu dira.

Horretaz aparte, gure helburu nagusia, ur-parketik igarotzen zareten bakoitzean irribarre bat marraztea denez, dibertsioa ziurtatuta egon dadin, **segurtasuna** asko hartzen dugu kontuan eta edozein istripu saihesteko aholkuak ere baditugu eta era berean segurtasuna mantentzeko, gure sorosleak ditugu parkean.

Parkean dauden informazio-karteletan, kontuan hartu beharrezko jarraibide eta arau guztiak aurkitu ahal izango dira, gure sorosle-taldearen gomendioekin batera. Nola sartu igerilekuetan, zure segurtasunagatik non egon zaitezkeen edo ez, zer jarraibide jarraitu atrakzio bakoitzean... Txakurrak igerilekuetan korrika sartu eta irteten direnez,





ingurua arriskutsua da etzanda egoten bagara atsedena hartzen. Horregatik, prestatuta dagoen kanpoko perimetroan bakarrik esertzea gomendatzen dugu, parkeak atsedena hartzeko guneak dituelako.

